# MEMORIA CARITAS GIPUZKOA- 2019

**RUEDA DE PRENSA 10 JUNIO 2020**

## *Memoria de Cáritas Euskadi 2019*

**27.806 personas atendidas por Caritas Euskadi en 2019.**
**Reflejo de la vulnerabilidad y la exclusión previa a la crisis**

*Personas atendidas 2019*

| *EUSKADI* | ÁLAVA | GIPUZKOA | BIZKAIA |
|---|---|---|---|
| ***27.806** (57% mujeres)* | **5.988** (64% mujeres) | **8.461** (55% mujeres) | **13.357** (55% mujeres) |

*Personas voluntarias 2019*

| *EUSKADI* | ÁLAVA | GIPUZKOA | BIZKAIA |
|---|---|---|---|
| ***3.773** (74% mujeres)* | **874** (70% mujeres) | **962** (65% mujeres) | **1.937** (81% mujeres) |

*Cuantía ayudas económicas 2019*

| *EUSKADI* | ÁLAVA | GIPUZKOA | BIZKAIA |
|---|---|---|---|
| ***3.727.724 €*** | 508.030 € | 1.722.885 € | 1.496.808 € |

## *Memoria de Caritas Gipuzkoa 2019*

### Algunos datos:

- **8.461 personas atendidas que impactan en 16.531 personas beneficiarias**
- El **55 % del total de personas atendidas son mujeres** *reforzando la tendencia en Euskadi de un proceso claro de feminización de la exclusión, al menos desde el punto de vista de la persona sustentadora principal de los hogares y cuando se tiene en cuenta el conjunto de las situaciones de exclusión*
- **Las personas migrantes** por tener menor red familiar y social de apoyo y con proyectos de vida más frágiles: situación administrativa irregular, no cumplir requisitos de acceso a prestaciones públicas, empleos precarios, son el perfil mayoritario de nuestra atención social.
- El destino mayoritario de los **apoyos económicos a personas y hogares (1.722.885 euros**) han ido destinados a subsistencia, vivienda y suministros, y empleo.
- Nuestro compromiso con el mundo también nos impulsa a trabajar con los países del sur y han sido destinados **273.515 euros a proyectos de cooperación**.
- La inversión para la **actividad social en el año 2019 ha sido de 8.056.280 euros**, donde el 73%son fondos propios y el 27% son fondos públicos (Diputación Foral de Gipuzkoa).
- De esta inversión total más de un **70% se ha incidido en área tan fundamentales como personas sin hogar, territorio y vivienda.**

- Nuestro **agradecimiento a las personas VOLUNTARIAS, personal CONTRATADO, y a todos los socios y donantes** que han hecho realidad esta Memoria. Este agradecimiento se extiende a la ***Diputación Foral de Gipuzkoa*** por el convenio de colaboración que posibilita en parte el mantenimiento y desarrollo de los programas y actividades.

## HECHOS RELEVANTES 2020: COVID-19

Este año la situación de emergencia sanitaria por el COVID-19 que estamos viviendo desde marzo, nos ha proyectado como sociedad a una crisis social difícil de cuantificar en toda su intensidad y duración, y que viene a ensanchar las situaciones más precarias ya existentes anterior a esta emergencia.

### Los rostros de la crisis

**Familias y, sobre todo, mujeres solas con hijos e hijas** a su cuidado, con baja cualificación, en desempleo o previamente con empleos precarios (servicio doméstico u hostelería) con poca o nula red de apoyo social y económico. Familias sin ahorro, que ante el colapso del SEPE han tenido que solicitar apoyo a Caritas. Familias sin fuentes de ingresos que quedan fuera del Sistema de Renta de Garantías por diferentes razones (no cumplir el tiempo mínimo de padrón, porque éste no se corresponde con su domicilio, o no tiene contrato de alquiler). Familias donde además recae ahora todas las tareas de cuidado, sin posibilidades reales de conciliación en la desescalada, y con grandes dificultades de apoyo en los procesos educativos de sus hijos e hijas.

**Personas sin hogar**. Son las personas más vulnerables, sin ingresos, sin alojamiento y con otras problemáticas añadidas de salud que requieren de apoyos intensos y que han visto paralizados sus procesos formativo-laborales, su acceso a recursos sociales por la paralización de valoraciones y con una mayor dificultad y necesidad de seguimientos sanitarios.

### Los retos a los que nos enfrentamos

Reforzar lo público para el acceso a la alimentación asegurando ingresos mínimos, acceso a la salud, a la educación, a la vivienda y al empleo protegido, en muchos casos flexibilizando requisitos administrativos de acceso para las familias más alejadas de esos bienes sociales.

Reforzar los valores humanos de solidaridad, como dicen nuestros obispos en la última carta pastoral ante la pandemia "La crisis económica y social en la que nos vemos inmersos requiere redoblar esfuerzos en austeridad personal, en generosidad y en compromiso. Es necesaria la participación de todo el Pueblo de Dios en la instauración de una verdadera economía de comunión, donde la persona humana sea el centro de la actividad económica y laboral. Es preciso trabajar para evitar "los múltiples descartes" de los más desfavorecidos, debilitados o en riesgo de exclusión." "Es un momento propicio para revisar las estructuras sobre las que se asienta la economía, realizando las correcciones necesarias de modo que la persona sea siempre el centro de la actividad económica."

# CARITAS GIPUZKOA- 2019 MEMORIA

**2020 EKAINAK 10 / PRENTSAURREKOA**

## *Caritas Euskadi 2019 Memoria*

**27.806 pertsona artatu ditu Caritas Euskadik 2019an.**
**Krisiaren aurreko ahultasunaren eta bazterketaren isla**

*2019ean artatutako pertsonak*

| *EUSKADI* | ARABA | GIPUZKOA | BIZKAIA |
|---|---|---|---|
| ***27.806** (%57 emakumeak)* | **5.988** (%64 emakumeak) | **8.461** (%55emakumeak) | **13.357** (%55 emakumeak) |

*2019ean bolontariak*

| *EUSKADI* | ARABA | GIPUZKOA | BIZKAIA |
|---|---|---|---|
| ***3.773** (%74 emakumeak)* | **874** (%70 emakumeak) | **962** (%65 emakumeak) | **1.937** (% 81 emakumeak ) |

*2019ko laguntza ekonomikoak*

| *EUSKADI* | ARABA | GIPUZKOA | BIZKAIA |
|---|---|---|---|
| ***3.727.724 €*** | 508.030 € | 1.722.885 € | 1.496.808 € |

## *Memoria de Caritas Gipuzkoa 2019*

**Zenbait datu:**

- **8.461 pertsona lagundu dira, onuradunak, 16.531 izanik**.
- Artatutako pertsona guztien **%55 emakumeak dira**, Euskadin bazterkeria feminizatzeko prozesu argi baten joera indartzen du horrek, batik bat etxeetako pertsona sostengatzaile nagusiaren ikuspuntutik, eta bazterkeria-egoera guztiak kontuan hartzen direnean.
- **Pertsona migratzaileak**, familia eta gizarte-sare babes txikiagoa dutenez, eta bizi-proiektu ahulagoak dituztelako: egoera administratibo irregularra, prestazio publikoak eskuratzeko baldintzak ez betetzea, enplegu prekarioak (ostalaritza eta etxe-zerbitzua) gure gizarte-laguntzaren profil nagusiak dira.
- Pertsonei eta etxeei ematen zaizkien **laguntza ekonomiko gehienak (1.722.885 euro)** biziraupenerako, etxebizitzarako eta horniduretarako, eta enplegura bideratu dira.
- Munduarekiko dugun konpromisoak hegoaldeko herrialdeekin lan egitera ere bultzatzen gaitu: **273.515 euro bideratu dira lankidetza-proiektuetara.**
- 2019an, gizarte-jarduerarako **inbertsioa 8.056.280 eurokoa** izan da; %73 funts propioak, eta %27 funts publikoak (Gipuzkoako Foru Aldundia).
- Inbertsio horren**% 70 baino gehiago funtsezko arloetan egin da: etxerik gabeko pertsonak, lurraldea eta etxebizitza.**

- **Eskerrak** eman nahi dizkiegu **boluntarioei, kontratatutako langileei eta memoria hau gauzatu duten bazkide eta emaile guztiei.** Eskerrak eman nahi dizkiogu **Gipuzkoako Foru Aldundiari**, programak eta jarduerak mantendu eta garatzeko aukera ematen duen lankidetza-hitzarmenagatik.

# 2020ko GERTAERA GARRANTZITSUAK: COVID-19

Aurten, martxotik aurrera bizi dugun COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoerak gizarte-krisia sortu du, eta oso zaila da kuantifikatzea zer intentsitate eta iraupen izango duen. Krisialdi horrek, ziur asko, larrialdiaren aurretik zeuden gizarte-arrakalak handitu egingo ditu.

## Krisialdi honen aurpegiak

**Familiak eta, batez ere, bakarrik dauden eta seme-alaben ardura duten emakumeak**, lanbide-prestakuntza gutxi dutenak, langabezian daudenak edo enplegu prekarioak dituztenak (etxe-zerbitzua edo ostalaritza), laguntza sozial eta ekonomiko txikia edo batere ez dutenak. Aurrezkirik gabeko familiak, SEPEren kolapsoaren aurrean, Caritasi laguntza eskatu behar izan diotenak. Diru-iturririk gabeko familiak, diru-sarrerak bermatzeko errentaren sistematik kanpo daudenak zenbait arrazoirengatik (erroldatuta gutxieneko denbora ez betetzeagatik beren bizilekuarekin bat ez datorrelako, edo alokairu-kontratua ez dutelako). Zaintza-lan guztiak egin behar dituzten familiak, konfinamendua arintzean lana eta familia bateragarri egiteko aukerarik ez dutenak, eta zailtasun handiak dituztenak seme-alaben hezkuntza-prozesuetan laguntzeko.

**Etxerik gabeko pertsonak,** egokitutako baliabideetan, ostatuetan edo geletan konfinatuta egon direnak, zer gizarte-laguntza eskuratu dezaketen ez dakitenak. Egoera ahulenean dauden pertsonak dira, diru-sarrerarik gabe, bizilekurik gabe eta osasun-arazoak ere badituztenak, eta laguntza handia behar dutenak. Gainera, prestakuntza- eta lan-prozesuak eten zaizkie, baita gizarte-baliabideak ere, balorazioak gelditu baitira, eta zailtasun eta premia handia dute osasun-jarraipenak egiteko.

## Datozkigun erronkak

**Baliabide publikoak indartzea,** gutxieneko diru-sarreren bidez elikagaiak eskuratu ahal izateko, bai eta osasun-zerbitzuak, hezkuntza, etxebizitza eta enplegu publikoa eskuratu ahal izateko. Horretarako, askotan, administrazio-baldintzak malgutu beharko dira, eta aintzat hartu gizarte-ondasun horietatik urrutien dauden familien abiapuntua.

**Elkartasuneko giza balioak indartzea,** gure gotzainek azken gutun pastoralean pandemiaren aurrean esaten duten bezala: “Murgilduta gauden krisialdi ekonomiko eta sozialak ahaleginak areagotzea eskatzen du, austeritate pertsonalaren, eskuzabaltasunaren eta konpromisoaren aldetik. Jainkoaren Herri osoak parte hartu behar du benetako elkartasun-ekonomia bat ezartzeko, ekonomia- eta lan-jardueren erdigunea gizakia izan dadin. Lan egin behar dugu, behartsuenak, ahulenak edo bazterketa-arriskuan daudenak alde batera ez uzteko.” “Une egokia da ekonomiaren oinarrian dauden egiturak berraztertzeko, egin beharreko zuzenketak egiteko, jarduera ekonomikoaren erdigunea gizakia izan dadin.”